

BALOREZKO PROPOSAMENA

Altzari konbentzionalak saldu ordez, auto birziklatuekin egindako diseinuzko altzariak sortuko ditugu gure enpresan. Honi esker, ingurumenean aldaketa positibo bat sortzea eta bezeroak nahi duen eksklusibotasuna lortzea dugu helburu.

Enpresa honetan, desgitean dauden auto zaharrak hartuko ditugu bereziki, bertan autoak moztu eta desmuntatu egingo dituzte eskatutakoaren arabera. Diseinu desberdinetako altzariak egingo ditugu, guk gure berezko diseinuak izango ditugu, baina bezeroak zerbait partikularra edo pertsonalatuagoa nahi badu, altzaria bere erara moldatzeko eta bakoitzak bere autoa ekartzeko prest egongo gara, modu honetara bezeroak ez dute hainbeste diru inbertitu behar, izan ere, esku lana bakarrik kobratuko zaio eta ez materialaren kostua.



Bai etxebizitza batean eta baita denda edo tabernetan ere jarri ahal izango dira. Modu honetara, bilatzen ari diren eksklusibotasuna asetu ahal izango dute, baina era berean piezak birziklatuak direnez, naturan dauden eta erabiltzen ez diren hondakin erabilgarrien pilaketa jasanezina eteten lagunduko dute.

Material hauen erabilpenak beste enpresengandik bereizten gaituen eksklusibotasuna ematen digu, izan ere, ez ditugu bi altzari berdin egingo, ondorioz, gure balioa kualitatiboa izango da. Diseinu berezi eta originalak izateaz gain, gure enpresak ingurumena babesteko helburua du, hortaz, gure altzairuen sorkuntza etikoa, jasangarria eta ekologikoa da. Aipatu beharra dago bakoitzak bere kotxea eraman dezakeela diseinu pertsonalatuago bat eta hobeto egokitutako bat lortzeko, hain zuzen ere, pertsona batzuk atxikimendu handia hartzen diote bere auto zaharrari, eta beste bat erositakoan ez dakite zer egin berarekin, beraz, bezeroari bere kotxearekin sortu ditzakegun hainbat diseinu ezberdin aurkeztuko dizkiogu eta berak nahi

duena hautatzeko aukera izango du eta hori egiten duen beste enpresarik ez dagoenez, gure enpresaren ezaugarri nagusia hori izango litzateke.

